



**IKUS-ENTZUNEZKO
GOMENDAGARRIAK GAIKA
ETA EUSKARRIKA**

7. Txostena

2020ko urtarrila

IKUS-ENTZUNEZKO GOMENDAGARRIAK GAIKA ETA EUSKARRIKA


Ikerketa honen helburua ikasleen artean nagusitzen den ikus-entzunezko kontsumo joera aztertzea da. Helburu horri jarraituz, inkesta bidez EHUko ikasle talde batzuei ikus-entzunezkoetan identifikatzen dituzten eduki gomendagarrien inguruan galdetu zaie, eta beraiek ikusteko hobesten dituzten telebista kanal edo bestelako euskarrien inguruan.

1. Ohar metodologikoak

Txosten honetan jasotzen diren datuak Ikusiker paneleko kideei egin zaien inkesta batetik jasotzen dira. Inkesta hori 2019ko abenduan egin da. Astebeteko tartean egon da irekita: abenduaren 2an jarri zen martxan eta 9an itxi. Guztira 786 panelisten inkestak jaso dira, gutxi batzuk amaitu gabeak (32 ez ziren azken galdera erantzutera iritsi). Galdera bakoitza erantzutea aukerakoa zenez edota kasu jakin batzuetan soilik zegokienez inkestatuei, erantzun kopurua aldatu egiten da galdera bakoitzeko.

2. Fikziozko eduki gomendagarriak telebistan edo telebistatik kanpo

1. Irudia - Zein telebista kanal gomendatuko zenuke fikzioa ikusteko?




Iturria: Ikusiker

Hasteko, fikziozko edukiak ikusteko telebista tradizionaleko zein kanal gomendatuko luketen galdetu da. Ikasleen %19,8k FDF gomendatu du, %18k Antena3 eta %15,8k Cuatro. Bestalde, inkestatutakoen ia laurdenak (%24ak) fikziozko edukiak beste kanal batzuetan ikustea gomendatu dute. ETB1, ETB2 eta ETB3 gutxien gomendatutako kanalen artean aurkitzen dira. Beren artean, ETB2 eta ETB3 kanalak izan dira fikzioa ikusteko kanal gomendagarrienak, %3,7 eta %3,8 punturekin, hurrenez hurren; eta

ETB1 gutxien gomendatutako kanala izan da %3 punturekin. Aldiz, inkestatutako en %28,6k ez luke telebista tradizionala gomendatuko fikziozko edukiak ikusteko.

2. Irudia - Fikziozko edukia non ikusteko gomendatuko zenuke? Telebistaz kanpoko euskarriak?




Iturria: Ikusiker

Telebista tradizionalaz kanpoko euskarriak dagokienez, Netflix izan da gomendatuena, inkestatuen %74,8k hori gomendatu baitu. Jarraian, inkestatutako en ia herenak, hots, %28k, HBO plataforma gomendatu du eta, ondoren, Youtube izan da plataforma gomendagarriena %22,1eko portzentajearekin. Gainerako kasuetan, Amazon Prime, bestelako euskarri batzuk eta Google gomendatu dituzte, hurrenez hurren. ETBko saio ezberdinak batzen dituen Nahieranek %3,8ak gomendatu du. Azkenik, ikasleen %2,6k adierazi duenez, ez luke telebista tradizionala ez den euskarrietan fikzioa ikustea gomendatuko.

Hortaz, fikzioa ikusteko garaian, ikasleek iritzi garbia dutela ondorioztatu daiteke, inkestatuen hiru laurdenak Netflix gomendatu baitu.

3. Entreenimenduzko eduki gomendagarriak telebistan eta telebistaz kanpo


3. Irudia - Zein telebista kanal gomendatuko zenuke entretenimendua ikusteko?



Iturria: Ikusiker

Telebistan entretenimendua ikusteko garaian zein kanal gomendatuko luketen galderari erantzunez, Antena3-ek emaitza altuak jasotzen jarraitzen ditu (%21,1) eta, ondoren, Tele5-k lortuko lituzke gomendio gehien %20,3 punturekin. Emaitzak askotarikoak izan dira entretenimendua ikusteko saioei dagokienez eta emaitzak nahiko barreiatuta daude: inongo kanalen emaitzek ez dute %21,2ko langa gainditu. Entretenimenduari dagokionez, ETB2ren emaitzak nabarmen igo dira %15,3 lortuz, eta baita ETB1enak ere, inkestatutakoen %10,6k euskarazko saioak gomendatu baititu. ETB3 izan da, aldiz, entretenimendua ikusteko gutxien gomendatutako kanala. Aitzitik, %12,7k adierazi du ez lukeela telebistaz kanpoko saiorik gomendatuko.

4. Irudia - Entretenimenduzko edukia non ikusteko gomendatuko zenuke? Telebistaz kanpoko euskarriak:




Iturria: Ikusiker

Entretenimenduari dagokionez, telebista tradizionalaz kanpo, gomendio gehien jaso dituen plataforma Youtube izan da %62,5eko portzentaiarekin. Fikziozko edukien emaitzekin alderatuz, Youtubek aurea hartu dio nabarmen Netflixi, azken honek entretenimendua ikusteko bigarren plataforma gomendagarriena izaten jarraitzen duen arren %32,6 puntuekin. Bestalde, inkestatuen arabera, Instagram da entretenimenduzko edukia ikusteko hirugarren plataforma gomendagarriena. Euskaraz izan daitezkeen entretenimenduzko edukiei dagokienez, Nahieran euskarriak fikziozko edukia ikusteko baino puntu gutxiago jaso ditu: %3,6.

Entretenimenduzko edukia ikusteko, beraz, Netflix eta, batez ere, Youtube dira plataforma gomendagarrienak inkestatuen arabera.

4. Eduki informatibo gomendagarriak, telebistan eta telebistaz kanpo

5. Irudia - Entreenimenduzko edukia non ikusteko gomendatuko zenuke? Telebistaz kanpoko euskarriak:




Iturria: Ikusiker

Telebistan ikusi daitezkeen eduki informatiboak dagokienez, batetik, ETB2, LaSexta eta ETB1 kanalak izan dira gehien gomendatu direnak honako portzentajeekin, hurrenez hurren: %32,4, %30 eta %28,4. Gomendio gehien jasotako ondorengo kanalak La1, Antena3, Tele5 eta Cuatro izan dira. Bestetik, inkestatutako %9,3k adierazi duenez, ez luke telebista tradizionala eduki informatiboak jasotzeko gomendatuko.

Eduki informatiboak ikusteko emaitza altuak jaso dituzte euskal telebistako kanalek. Fikziozko eta entretenimenduzko edukiak ikusteko gomendioekin alderatuz, inkestatutakoek gomendatutako eduki informatiboak ikusteko kanal nagusiak bihurtu dira: ETB1 inkestatuen %28,4k aipatu du eta ETB2 %32,4k. ETB3k, berriz, emaitza baxuak jaso ditu informaziozko edukiei dagokienez.

6. Irudia - Informaziozko edukia non ikusteko gomendatuko zenuke? Telebistaz kanpoko euskarriak:



Iturria: Ikusiker

Bestetik, grafikoari erreparatuta, eduki informatiboa ikusteko plataforma gomendagarriena izaten jarraitzen du Youtubek, inkestatuen %33,5ren gomendioak

lortuz. Ondoren, Google eta Twiterrek lortu dituzte emaitza altuenak eta portzentajeak nabarmen handitu dira fikzioari eta entretenimenduari dagokionez. Horrela, inkestaturen ia bi herenek azken bi plataforma horiek gomendatu ditu gehien: %29,6 eta %27,6 punturekin, hurrenez hurren. Hurrengo gomendio gehien jaso dituztenak Instagram sare soziala (%13,5) eta Netflix plataforma (%12,8) izan dira. Bestalde, ikasleen %15,1ek adierazi duenez, ez luke telebistaz kanpikorik gomendatuko. Azkenik, Nahieran euskarriak gomendioen ia puntu bat galdu du fikziozko zein entretenimenduzko edukiak ikusteari dagokionez, informazioa eskuratzeko gomendioen %2,7 jaso baitu.